

Animaliekin jolas literarioan arituko dira datorren astean Ordiziako haurrak udal liburutegian

Erakusketa teorikoa eta praktikoa izango dute zabalik astelehenetik lehen hezkuntzakoek

Ordizia. Galtzagorri elkartearen bidez erakusketa bat izango da zabalik datorren astean Barrena kultur etxeko udal liburutegian. Animaliek hizketan zekiten garaian du izena. Honekin batera, ipuin kontaketa prestatu dira.

Animaliek hizketan zekiten garaian alegien inguruko literatur animazio bat da. Literatur tradizioan animaliak erabili izan dira giza sentimenduak aztertu, aurkeztu eta jarrera ereduak eskaintzeko, Galtzagorriren esanetan. "Alegi hauen bidez, jolas literario batean murgilduko ditugu haurrak hainbat ekintza burutuz eta irakurketa nahiz idazketa proposamen desberdinak emanez", diote. Horretarako, areto honetan aurkezteko alegi berriak asmatu dira.

Bi alderdi ditu erakusketak: teorikoa bat eta praktikoa bestea. Bigarrena da aretoaren muina.

IKASTETXEAREKIN

Hamaika aukera izango dira erakusketara hurbiltzeko. Alde batetik, arratsaldero izango da zabalik 18.00etatik 20.00etara.

Bestetik, eskola ordutan burututako saio gidatuak eskainiko dituzte, Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzendutakoak. Sei eta zazpi urte bitarteko gaztetxoek izango dute aukera. Saio bakoitzean ikasgela bakar batek parte hartuko du. Egunean bi izango dira, bakoitza 75 minutu ingurukoa. Astelehen eta asteartean Urdaneta ikastetxeak gerturatuko dira eta asteazken eta ostegunean Jakintza ikastolakoak izango dira bertan.

Aldi berean, Mertxe Aizpuruaren eskutik bost ipuin kontaketa antolatu dira, egunean bat, astelehenetik ostiralera, 17.00etan. Lau eta zortzi urte bitarteko haurrentzat dira. Saio guztiak fabulen inguruan izango dira eta erakusketa dagoen tokian egingo dira.

HELBURUAK

Galtzagorri elkarteak 1990ean sortu zen eta bere egitasmo nagusien artean, euskarazko haur eta gazte literatura sustatu eta ezagutaraztea daude. www.galtzagorri.org helbidean ere aurki daitezke.

Hainbat helburu lortu nahi ditu elkarteak datorren astean Ordizian izango den ekimenarekin. Hala, alegien bidez haurrek beren sentimenduekin esperimentatzea, literatura modu ludiko batean goza-tzea, entzumenezko material original bat sortzea, literatur zaletasuna suspertzea eta hizkuntzaz gozatzea.

Hauekin bat egin du Barrena kultur etxean Blas Usabiaga liburutegian zuzenduta dagoen Udal Liburutegiak. >a.i.